

LOS FUEROS, RAIZ DE LA BASCONIDAD

Elias Amezaga
Ekin Argitaletxea, Bilbo, 1992

Elias Amezaga idazle prorokatu eta originalak, gaur aipatu nahi dugun bere liburuko kontraportadan ondoko gisan definitzen dutenak, "escribe y crea por vocación y por considerar, que es el mejor medio de servir a su pueblo", euskal abertzaletasunaren erroen nondik norakoa konprenitzeko ezinbesteko material direnak atzemanik ordenaketa pedagogiko bat eginaz gero entusiasmoz aurkezten dizkigu.

Adieraz dezagun, halere autoreak liburuari egindako aitzinsolasean dioenez, jadanik 1975ean entseiu modura, "1000 años con Fueros, 100 sin", izenburupean, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxean, gaurko obra hau egiten duen hezur-mamien ardatza eskainia zuela. Oraingoan bada foralista garrantzizkoenen bizitzari buruzko aipamenak eta artxiboetan galdurik dauden foralista horien testu adierazgarriez zenbait eranskin dituela datorkigu lehengo hura.

Esku artean dugun liburua, Aitzinsolasa deiturikoa, atal nagusi batekin bideratzen da. Oso konposizio berezia du Sarrerako izenez autoreak entseiuaren argital ibilbidea aipatu ondoren, azken hamabost urteetako euskal politikoei Espainiako

Konstituzio berriaren orduan igaroan, hots, 1839an eta 1876an egindako gure ondarearen baztertzea errekuperatzen ez jakitea leporatzen die. Euskal Herriaren gehiengoak hori gogoko bazuen ere. Laugarren parada bat egongo ote da, galdetzen du, beldurti hala ez izango ote den etorkizuna imajinatzeaz.

Arras molde pedagogikoan emana dagoen euskal identitatearen hurbileko ikerketen laburpen bat egiten du. Euskaltasunaz auzi bateko eszenario bat muntatzen du. Bi aldeen abokatuen arteko elkarrizketa bat dago. Batak, bistan denez, euskaltasunaren kausa defendituko du, horretarako giza eta gizarte-jakintzen ekarpenek dituztena azalduz, eta besteak, guzi horri euskaltasunaren arerioek ezarritako oztopo eta salaketekin ihardesten dio. Gure kulturako pertsonaia ezagunen izenak sostengu-lekukotasuna ematera agertzen dira.

Urrunago autoreak 1984 eta 1986an foralitateaz argitaratutako artikulua bi sartzen ditu. Eta aitzinsolasa amaitzeko, M. Larramendi, P. Novia Salcedo, R. Ortiz de Zarate, M.B. Moraza, S. Olave eta A. Campion foralisten bizitzari buruzko aipamenak egiten ditu.

Guzti honekin irakurlearen apetitua irekita, autoreak, Estatuaren izaera erdirakoiaren konbenientziaz eta foralitate-sistemaren desegokitasunaz eztabaida hasi zenez geroztik euskal foruen inguruan egoniko diskurtsoen laburpen historiko gaikatu bat egiten du idazle-abilezia handiz. Izenburutzat adierazgarri diren bi esaldi hauek ditu atalak: "de lo que se escribió en fueros". Halere, hemezortzigarren mendetik hartzen du eztabaida.

Egin den bidea ez da diletante batena. Horregatik, puntu horretara heltzean, autorea, "de lo que entre lo que se escribió y se dialogó en el siglo XIX puede aprenderse en el siglo XX", atala irekitzen du. Halere, esan dezagun bide honetan, irakurlearentzat maleruski, ez dela urrunera joaten. Gogoeta zenbait egitera mugatzen da. Ondorio bezala autoreak ateratzen duen hau transkribatuz amaituko dugu: "Me puse en el siglo XIX y no salí de él. Si me enfadé lo hice históricamente. Si sólo hubiera de extraer una enseñanza para nuestro siglo, sería ésta: vota contra los

partidos políticos. Si los lazos de la sangre nos hubieran unido en las guerras del siglo pasado y del presente no nos hubiéramos hecho trizas unos vascos con otros. Estémos juntos a ver qué clase de democracia hacen por ahí. La nuestra es nuestra historia misma. Que los que demuestren que ya la aprendieron nos pidan nuestro concurso."

Gure hitzez amaitzeko gauza bi. Azken testu honetan gutxiagotua antzematen dut odolezko elkartzeko batetik arrazoizko hitzarmen batera dagoen urratsaren alde nabarmen zea. Halaber, eragozpentxo hau agertu behar nuen. Horrela bakarrik eraikiko baitugu elkarrekin borrokatzen dugun ondarez bezain presenteko gatazkaz eta aukera desberdinez osaturiko Euskal Herri hori. Irakurleari gomendio bero bat liburu honetan murgil dadin. Ez da goi-ikerketako liburu bat. Baina, goi-ikerketen lekuko izanez haien egile eta aurkezle gehienek lortzen ez duen bezalako jakinmina eta gozamina ekartzen dizkigu.

Jokin Apalategi